

**21/2024 TXOSTENA, URRIAREN 15EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU  
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, OSASUN SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA  
FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikulua araber, sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasuna eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Halaber, 18/2024 Dekretuaren 14. artikulua honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Osasun Sailari:

- a) Plangintza eta antolamendu sanitarioa.
- b) Elikadura- eta ingurumen-osasuna babestea.
- c) Zaintza epidemiologikoa.



- d) Farmazia-antolamendua.
- e) Adikzioak.
- f) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- g) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

Bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera, sail honi atxikita daude: «Osasun Publikoaren Euskal Institutua» organismo autonomoa; «Osakidetza – Euskal Osasun zerbitzua» zuzenbide pribatuko ente publikoa; eta «BIOEF – Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa» sektore publikoko fundazioa.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoan esaten da sailburuek, 2024ko urriaren 31 baino lehen, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiotela lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Beraz, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta, horren bidez, 14. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien egitekoak gauzatu ahal izateko.

2024ko urriaren 3an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Espediente hori Tramitaguneraren bidez —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren bidez— izapidetu zen, DNCG\_DEC\_5674/24\_10 erreferentziarekin, eta txostenerako interesgarriak diren honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuaren arau-eragina aztertzeke memoria.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua eta proiektua aldeztatik onartzeko agindua.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: 17 artikulua, xedapen gehigarri 1, xedapen iragankor 2, xedapen indargabetzaile 1 eta azken xedapen 1.

## **II.- ESKUMENA.**

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi.

### III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Jarraian, kontratazio publikoari buruzko proiektuaren artikulua aipatuko ditugu:

*“4. artikulua. – Osasuneko sailburua.*

[...]

*3.– Halaber, sailburuari dagozkio honako egiteko hauek ere:*

*a) Sailari 500.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena ematea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.*

[...]

*5. artikulua. – Osasun Saileko sailburuordetzak.*

[...]

*2.– Oro har, sailburuordeek honako egiteko hauek izango dituzte:*

[...]

*h) Sailburuordetzako zuzendariak emandako ebazpenen aurka jarritako errekursoak ebaztea, baita, hala dagokionean, organo periferikoen emandakoen aurka jarritakoak ere, baldin eta hierarkikoki euren gainetik badago.*

[...]



k) Saileko hizkuntza-normalizazioaren ardura bere gain hartzea, eta bere eskumeneko alorretan zerbitzu- eta lan-hizkuntzan euskararen erabilera sustatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, Gobernuak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoan xedatutakoari jarraikiz. [...]

13. artikulua. – *Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza.*

1.– 5. artikuluan ezarritako egitekoetz gain, *Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza*ri dagozkio honako jardun-arlo hauen zuzendaritza eta koordinazioa:

[...]

c) *Kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontu-arlokoa eta kontrol- eta jarraipen lanak egitea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzak eta Osasun Saileko lurralde-ordezkariek Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuarekin sinatutako programa-kontratu guztietan, bat etorritik 13. artikuluko honekin, eta Sailaren lurralde-ordezkaritzek egindako kontratazio sanitario orotan.*

[...]

f) *Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuko erakunde zentralarekin programa-kontratua hitzartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen diren programa-kontratuak hitzartzea ere.*

[...]

2.– *Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordeari dagokio sailaren gastuak baimentzea 500.000 eurora arteko espedienteetan.*

3.– *Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea izango da sailaren kontratazio-organo ahaldua larrialdi-izapideetan zerbitzu-zorroko prestazio sanitarioak kontratatzeko.*

4.– *Halaber, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordeari dagokio osasun-prestazioen alorrean berriazko kontratazio-organo gisa aritzea, prestazioak osasun-arlo bati baino gehiagori zuzentzen zaizkienean. Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzari dagokio kontratazio horiek izapidetzea.*

14. artikulua. – *Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.*

1.– *Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak egiteko hauek izango ditu, 6. artikuluan ezarritakoetz gain:*

[...]

r) *Osasun Sailari sistema informatikoen arloan dagokion kudeaketa administratiboa zuzendu eta koordinatzea, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearikiko (EJIE) harreman-tresnen harpidetza eta segimendua barnean hartuta.*

[...]

2.– *Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagozkio sailaren ohiko kontratazio-organo izateak berekin dakartzan egiteko guztiak, hargatik eragotzi gabe dekretu honek sailako beste organo batzuei arlo honetan eta berriazko kontratazio-organo gisa esleitzen dizkien eskumenak.*

*Halaber, eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide propio pertsonifikatuzat hartzen diren entitateekin prestazioren bat hitzartzeko negozio juridikoak egiteko. Sektorre publikoko kontratazioaren arauetan jarriko du zein diren baliabide propio pertsonifikatu horiek.*

15. artikulua. – Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

1.– Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak egiteko hauek izango ditu, 6. artikuluan ezarritakoez gain:

[...]

c) Osasun Sailburuordetzarekin batera, gidalerro eta irizpide nagusiak lantzea zerbitzu sanitarioak kontratatzeke, haien definizio estrategikoaren arabera. Horretarako, irizpide bereziak proposatuko ditu, helburu eta baliabide ekonomikoak esleitzeko Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako antolakundeei – programa-kontratuen bitartez – eta beste agente sanitario batzuei – kontratazio-ereduen bitartez –; era berean, kontratazio-plan orokorrak ezarriko ditu, hala eskatzen duten prestazioetarako.

d) Kontratazio sanitarioari ezar dakioken oinarrizko prezio-politika proposatzea.

e) Zerbitzu sanitarioen kontratazio publikoa gauzatu eta ebaluatzea, Osasun Sailaren eskumen-eremuan eta saileko gainerako organoekiko koordinazio estuan.

[...]

17. artikulua. – Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzak.

[...]

2.– Lurralde-ordezkaritza bakoitzak buru edo ordezkarri bat izango du, zeina Osasun Sailak lurralde historikoan izango duen ordezkarri gorenaren izena izango baita.

Lurralde-ordezkaritzak, hierarkikoki, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren mende egongo dira. Funtzionalki, Osasun Saileko zuzendarien mende egongo dira, gaiaren arabera.

Lurralde-ordezkaritza kontratazio-organo espezifiko gisa jardungo du, eta, zerbitzu-zorroko zerbitzu sanitarioen prestazioa kontratatzeari dagokionez, kontratazio-organo gisa dagozkion egitekoak gauzatuko ditu zerbitzu horiek berari dagokion osasun-barrutira zuzendutakoak badira, sailak ezartzen dituen gidalerro eta irizpideekin bat etorriz.

Halaber, lurralde-ordezkaritza bere lurralde-eremuan Osakidetza – Euskal osasun zerbitzua- ren zerbitzu sanitarioen erakundeekin programa-kontratuak izenpetzea.

[...]

5.– Antolamendu eta Kontratazio Sanitarioaren Arloak honako egiteko hauek izango ditu:

[...]

b) Osakidetza – Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zerbitzu sanitarioetako antolakundeekin egiten diren programa-kontratuak izapidetu, horien gaineko intzidentziak ebatzi, segimendua egin eta ebaluatzea, sailean ezartzen diren gidalerro eta irizpideei jarraikiz.

[...]

d) Lurralde-ordezkaritzek ebatzi beharreko osasun-zerbitzuak kontratatzeke espedienteak izapidetu, jarraitu eta ebaluatzea, eta maila goragoko espedienteen segimendua eta ebaluazioa egitea, kontratazio-organoak ezarritako moduan.



Adierazi behar da 116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen duela: *“Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...] salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]”*.

Ahalmen horretaz baliatuta, dekretu-proiektuaren 14.2 artikulua ezartzen duenez, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagozkio sailaren ohiko kontratazio-organo izateak berekin dakartzan egiteko guztiak. Ohiko kontratazio-organo horretaz gain, beste kontratazio-organo espezifiko batzuen ardura izango dira prestazio sanitarioak xede dituzten kontratuak; izan ere, ondorioz, 14.2 artikuluan esleitutako eskumena baliatuzetik kanpo geratuko lirateke.

Hala, gaien eremu espezifiko horren barruan, bi kontratazio-organo izendatzen dira, kontratazioek hartzen duten lurralde-eremuaren arabera. Horrela, kontratazio-organoa Osasun Saileko lurralde-ordezkaritza bakoitzeko titularra izango da, kontratatu beharreko osasun-zerbitzuak dagokion osasun-barrutira zuzentzen direnean (17.2 artikulua); bestalde, kontratazio-organoa Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea izan da, kontratatu beharreko osasun-prestazioak osasun-barruti batera baino gehiagora zuzentzen direnean (13.4 artikulua).

Lurralde-eremuaren araberako banaketa horrek badu salbuespen bat: zerbitzu-zorroko osasun-prestazioak larrialdiko izapidetzearen bidez kontratatzea, zeina Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusita baitago; kasu horretan, dekretu-proiektuaren 13.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearena izango da eskumena. Hari dagokio, halaber, sailaren 500.000 eurora arteko gastuak baimentzea (13.2 artikulua).

Ilido horretan, aipatu behar da kontratazio-organoaren edo -organoen egituraketa Sailari berari dagokion antolaketa-gaia dela; beraz, proiektuan jasotako aurreikuspenak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren xedapenekin.

Bestalde, 14.2 artikulua horrek, gainera, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariari ematen dio bitarteko propioei enkarguak egiteko eskumena, zeina Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan araututa baitago.



Batzorde honek beste batzuetan jakinarazi duen bezala, bitarteko propioei egindako enkargua lankidetzan publikoko modu bat da. Modu horretako lankidetzan publiko horrek kontratuzkoa ez den izaera instrumentala du, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak ditu, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan (kontraprestazio ekonomikoaren eta kontratatzailearen profileen nahitaez agertu beharreko publizitatearen mende daude, eta kontratu-errekurtsoen auzitegietan errekurrizko modukoak dira).

Kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta efizientziaren gaineko arriskuak ekar ditzakeenez, bitarteko propioei enkarguak egin ahal izateko, arrazoitu egin behar da, eta alderdi hauek islatu, besteak beste: enkargua egiten duen entitateak ez daukala zuzeneko bitarteko nahikorik; enkargua jasoko duen entitatea egokiena dela formalki (helburu sozialaren egokitzapena) eta materialki (bitarteko egoki nahikoa duela), eta, halaber, kudeaketako efizientzia-arrazoiak daudela.

Bestalde, dekretu-proiektuaren 4.3 a) artikulua ezartzen du sailburuak eskumena duela Sailari 500.000 eurotik gorako gastuak egiteko baimena emateko, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak. Ildo horretan, lehen aipatutako 116/2016 Dekretuaren 3.1 artikulua ezartzen duenez, Gobernu Kontseiluari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak eta esparru-akordioak egiteko baimena ematea.

Horri dagokionez, onartu diren aurrekontu-legeetan adierazten da Gobernu Kontseiluaren baimen horrek gastua baimentzea ekarriko duela, baldintza-agirietan aurreikusitako balizko aldaketa eta luzapenei dagokiena barnean dela. Halaber, hau jasotzen du Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 117.1 artikulua: *«Kontratazio-espeditentia osatu eta gero, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du kontratazio-organismoak, espeditentia onartzeko, eta adjudikazio-prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastuaren onespina ere ekarriko du, salbu eta aurrekontua aurrez ezarri ezin izan den aparteko kasuetan edo deskontzentrazio-arauek edo eskuordetze-egintzak kontrakoa ezartzen dutenean, halakoetan onespina eskatu behar da baitzaio organo eskudunari. Ebazpen hori kontratatzailearen profileen argitaratu behar da».*

Horrela, dekretu-proiektuan jasotako kontratazio-organoen egituraren bidez, organo horietako bakoitzak, finkatutako mugen barruan, ordenamendu juridikoak kontratazio-organoei ematen dizkien eskumenak baliatzen ditu; besteak beste, espeditentia onartzea (gastua onartzea ere ekarriko du) eta adjudikazio-prozedura irekitzea, besteak beste.



Ondorioz, gastua onartzeko –zeina dagokion esparruaren barruan egingo baita–, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen baimena lortu beharko da, gastua 500.000 eurora artekoa bada; gastua 500.000 eurotik gorakoa bada, berriz, Osasuneko sailburuaren baimena beharko da. Eta gastua Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako muga kuantitatiboa baino handiagoa bada, Gobernu Kontseiluak baimendu beharko du gastua.

Errekurtsoak ebazteko eskumenari dagokionez, dekretu-proiektuaren 5.2.i) artikuluan dago jasota. Horren arabera, sailburuordeek, besteak beste, Sailburuordetzako zuzendariek emandako ebazpenen eta administrazio-egintzen aurka jarritako errekurtsoak ebatziko dituzte, bai eta, hala badagokio, organo periferikoek emandakoen aurka jarritakoak ere, baldin eta hierarkikoki euren gainetik badaude.

Halaber, proiektuaren 17.2 artikulua hirugarren paragrafoak adierazten duenez, lurralde-ordezkariek kontratazio-organo espezifiko gisa jardungo du, eta, zerbitzu-zorroko zerbitzu sanitarioen prestazioa kontratatzeari dagokionez, kontratazio-organo gisa dagozkion egitekoak gauzatu dituzten zerbitzu horiek berari dagokion osasun-barrutira zuzendutakoak badira. Era berean, lurralde-ordezkaritari dagokio bere lurralde-eremuan Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzu sanitarioko erakundeekin programa-kontratuak izenpetzea.

Aipatutako 17.2 artikulua bigarren paragrafoan adierazten denez, lurralde-ordezkaritzak hierarkikoki Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren mende egongo dira. Beraz, ondorioztatzen da sailburuordetza horretako titularrak duela eskumena lurralde-ordezkariek emandako ebazpenen eta egintzen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoak ebazteko.

5. artikulua 2. apartatuko k) letrari eta 13. artikulua 1. apartatuko d) letrari buruz, Saileko edozein eremutan euskara sustatzeko eskumenari dagokionez, aipatu behar da kontratazioaren eremuan eskumen hori garatu behar dela, Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an onartu zuen eta indarrean den erabakiaren arabera –Erabakia, zeinaren bidez onartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitate guztietan aplikatu beharrekoak–.

Bada, aipatu berri den erabakian ezarritakoaren arabera, EAeko Sektore Publikoak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira: batetik,



herritarrei bermatzeko entitateei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza- ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

Era berean, kasuan-kasuan kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituzte administrazio-klausula partikularren agirietan. Alde horretatik, kontratuaren xedeak bete egingo du bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den entitatearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Orobat, herritarrei arreta ematea eskatzen duten edo xedea zerbitzu bat ematea duten kontratuetan, proportzionaltasun-printzipioa bermatu beharko da kontratuaren preskripzio teknikoetan, kasuan kasuko ezaugarrien, helburuaren eta hartzaileen arabera; kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotu beharko zaizkie, eta bitarteko propioen edo besteren bitartekoen bidez egiaztatu ahal izango ditu enpresak.

Kontratua betearazteko baldintzen artean, entitate kontratatzailearen eta adjudikaziodunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak azaldu ahal izango dira.

Alabaina, kontuan hartu behar da hizkuntza-klausulak ezin direla ezarri eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen artean.

Erosketa publiko estrategikoa bultzatzean, gomendatzen da kontuan hartzea 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua jasotzen duela Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek informatu egin behar duela kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoez: "Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta".

Halaber, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua indarrean jartzearen ondorioz – 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena–, 1/2024 Jarraibidea onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek orientabideak eskaintzen ditu genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Administrazio Instituzionalaren eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio publikoan txertatzeko moduari buruz. Horren guztiaren xedea da laguntza ematea aipatutako Legearen testu bateginean



(martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) kontratazio publikoari buruz xedatutakoa aplikatzeko, bereziki 22. artikuluan dioena. Nolanahi ere, kontratazio publikoa arautzen duen esparruak ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da.

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta gomendioen arabera egokitzen bada.